

Martin Ugalde ez da hilko

Joan Mari Torrealdai

Berria, 2004-10-05: VII.

Martin bere obra da. Pentsatu, sentitu eta bizi ohi duen guztia idatziz utzi du Martinek. Bere obra irakurriz Martin osoa ezagutu dezakegu. Autobiografia bat da.

Eta aukera hori izango dugu.

Oraingoz ezagutzen dugun Martin ez da osoa. Asko, erditik gora falta zaigu ezagutzeko. Lau urte barru Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker egin ahal izango dut, egin ahal izango dugu, bilketa lan hori. Eta Martinen borondatea zen bezala, jendearen eskura utziko da, nornahiren esku. Berriz gauzatuko da Martin Ugaldek esaten zuena: Martin Ugalde Herriarentzat debalde.

Martinen lan guztien bilketa ez da ametsa, bidean dagoen errealitatea da. Lau urte barru burutuko dugu. Martinen ametsa zen, eta gure aldetik omenaldi ederra, bere obra osoa Martin Ugalde Kultur Parkean jendearen eskura egon dadila lortzea. Unibertsitateak, herriko militanteak, kultur eta euskaltzaleak kontsultatu eta aztertu ahal izan dezan. Espero dezagun Del Olmok ekarri zigun amesgaiztotik libratzen garenean Martinen amets hori egia bihurtzea. Hau da, Martin Ugalde Kultur Parkea izatea Martinen obra kokatu, elikatu, dinamizatu eta lau haizeetara barreiatuko duena.

Lekuko naiz eta berma dezaket zein handia eta sakona zen proiektu horrek Martini ematen zion poza. Azkenaldian jabetua zegoen Martin bizialdi fisiko-tenporala bazihoakiola, ez zegoela luzarorako gure artean fisikoki. Baina idazle argi bezala bazekien irauteko, betiko bizitzeko modu bakarra bere obra zela, baina obra horrek jendearen eskura behar zuela, ezaguna. Martin artista zen, eta inork jakitekotan artistak daki nola luzatzen den bizitza mundu honetan hil ondoren ere.

Esan dut arestian Martinen obra, azken batean, autobiografia luze bat dela. Berak bizi, sentitu eta ikusten zuena idatzi du Martinek. Bere bizitzako zati bat ez dagoenean, bere ikuskera dago. Erreportaiarik urrutikoenean edo artikulurik aseptikoenean ere badago Martinen zerbait bertan. Ez baita idazle abstraktua, bizitzaren kronista baizik.

Bere obran kontatzen da abertzale bezala zenbat sufritu zuen, Francoren kontra egin zuen borroka, bere ahaleginak abertzaletasuna eta alderdia berritzeko eta modernizatzeko. Bere saioak abertzaleen batasuna edo elkarlana lotzeko. Idatzita daude Caracaseko bere "beste" aberriari eman zizkion maitasun frogak, bere obra literarioaz gainera, noski. Bere idazlanetan ageri dira Euskal Herrira itzultzea zergatik eta nola erabaki zuen. Hitz larritan ez dakit baina lerro artean irakur daiteke hor zein egoera ederra utzi zuen atzean (*El Dorado*), eta ustez bere herrira itzultzen zelakoan nola etorri zen basamortu kulturalera, zentsuraren erreinura eta ez bera eta ez bere obra ezagutzen zuen "bere" herrira. Alegia, nola hasi zuen bizimodu berri bat 48 urterekin, ofiziorik eta dirurik gabe.

Berak idatzita dakigu hona itzuli zenean zer aurkitu zuen: zentsurapeko herri desinformatu bat, bere nortasunaren kontzientziarik gabe. Eta berak dio nola hasi zen, hutsuneak betetzearren, historia idazten, elkarrizketak egiten, euskaldun informatuen bidez herriaren kontzientzia indartzen.

Idatzita utzi duelako dakigu nola itzuli zen 1969an euskaraz bizitzera eta idaztera, eta nola lortu zuen urte asko pasatu eta gero. Lerro artean irakurriz dakigu 90eko hamarkadan euskaraz bakarrik idatzi duela. Behin eta berriz idatzi du zergatik, nola eta zertarako sartu zen *Euskaldunon Egunkaria*-ko abenturan, Joxemiren sua egiazkoa zela sinetsiz.

Idatzita utzi ez duena da nola hil nahi izan duen Del Olmo epaileak, *Egunkaria* itxiz, bere lagunak atxilotuz eta bera eta bereak pertsegituz. Kontuak blokeatuta eta inputatugai dela hil da Del Olmoren Martin. Baina gurea, gure Martin ez da hil, eta ez da hilko.